

Prentsa oharra Nota de prensa



DONOSTIAK KANPAINA BAT HASI DU PLASTIKOAREN ERABILERA MURRIZTEKO HIRIAN

Donostiako Udalak, Ekologia zinegotzigoaren bitartez, hirian erabilera bakarreko plastikozko ontzien eta poltsen gehiegizko kontsumoari aurre egitea erabaki du. Horregatik, **"Zero Plastik"** lelopean, kontzientziazio-kanpaina bat diseinatu da ekaina osoan zehar gauzatuko dena. Hainbat ekitaldi, tailer eta erakusketa egingo dira enpresa komertzialekin, supermerkatuekin, heziketa-zentroekin, kultur festibalekin eta hiriko kirol ekitaldien antolatzaileekin.

Marisol Garmendiak, Ekologia zinegotziak, adierazi duenez, "Klima DSS2050 Ekintza Planaren barruan aurrerapausoak ematen jarraitu nahi ditugu Klima Aldaketaren aurkako borrokarekin jarraitu ahal izateko, eta honako ekimenak, hogeit bat merkataritza-kate eta donostiar kirol eta kultura erakundeek babestuta, aurrerapauso garrantzitsua da guztion esfortzuarekin eta

Prentsa oharra

Nota de prensa

konpromisoarekin helburu komuna lortzeko: hiri-ingurune hobea eta ingurumena gehiago errespetatzen duen hiria lortzea hain zuzen".

2020an diseinatutako plastikoen estrategian jasotzen den bezala, urtean 6.500 tona plastikozko ontzi arin sortzen dira hirian, handituz doan kopurua, eta horretatik %50a inguru gaika biltzen dira. 2019an bildu ziren plastikozko ontzi arinen 3.270 tona hondakinetatik, %16a PET motako plastikoak dira (ur eta freskagarri botilak, olio-ontziak, kosmetikoak eta sendagaiak), %8a PEAD motako plastikoak (erosketa-poltsak, esneki-botilak, xanpu-ontziak), %56a PEBD motako plastikoak dira eta %20a gainerako plastikoak eta nahasketak dira (San Markoseko Mankomunitatea, 2019).

Sortutako arazoaz jabetuta, Udalak **plastikozko erabilera murrizteko estrategia** bat prestatu du, erabilera bakarreko plastikozko hondakinak eta plastikozko ontziak ez sortzeko. *Zero Plastik* estrategiaren bidez, Udalak epe ertain-luzeko estrategia bat jarri du martxan, denboran iraungo duena eta honako helburu hauek lortzeko abiatuta izan dena:

- Ontzien erabilera %17ra murriztu, ontzien eta erabilera bakarreko plastikozko produktuen erabilera arduratsua sustatzea.
- Plastikozko ontzien hondakinen gaikako bilketa %55era handitu.
- Ingurumenean hondakin plastikoen abandonua ahalik eta gehien murriztu.
- Ezinbestekoak ez diren erabilera bakarreko plastikoak udal- eraikin eta -bulegoetatik kendu.
- Udal-eraikin eta -bulegoetan plastiko biodegradaezin guztiak ordezkatu, betiere aldaketa horrek ingurumen-abantaila dakarren aplikazioetan.

Garmendiak azpimarratzen duen bezala, "gaur aurkeztu den proiektua Donostiako herritarrak plastikozko ontzien eta poltsen gehiegizko erabilera murrizteko beharraz inplikatu eta kontzientziatu nahi ditu. Ontzi eta poltsa horiek, askotan, bide publikoan edo hondartzetan uzten dira, eta ondorioz, itsasoa kutsatzen dute, horrek kate trofikoari kalte eginez, eta zuzenean itsas ekosistemei, kostaldeko turismo-eremuetako ekonomiari eta pertsonen osasunari eginikoa".

Ekainean egingo den "**plastikorik gabeko hilabetean**", hurrengo jarduera hauek egingo dira: Urumea ibaiaren garbiketa kanoa eta paddle surfeko tauletan hiriko ikasleen parte-hartzearekin; Alderdi Ederren plastikoari buruzko erakusketa bat egingo da Emausen eskutik, hainbat jarduera eta tailerrekin; Ulia mendia garbituko da lehengo plater-tiroaren inguruan abandonatutako

Prentsa oharra

Nota de prensa

kartutxo zaharrak biltzeko; Igeldo mendia ere zaborrez garbituko da. Era berean, plastikozko tupper-ak banatuko dira merkataritza-lokaletan arraina erosi eta ontziratatu behar ez izateko, eta botila itzulgarriak banatuko dira hondartzetan, ontzien ugaltzea eta beste jarduera batzuk murrizteko.

Parte- hartze eta -kontzientziazio dinamikaren barruan, Ceinproko akademiarekin lankidetzan aritu gara kanpaina honen kartela eta logoa egiteko. Honakoa Ruben Roloren diseinu bat da, Ceinproko ikaslea, Udalak antolatutako lehiaketa baten irabazlea izan zena. Ekimenak gainera, Ekotrade eta Banco Sabadell bezalako laguntzaileen babesa ere badu.



DONOSTIA · SAN SEBASTIÁN
ZERO PLASTIK